

KÄISER SOSE

KÄISER SOSE
MY NAME IS
KÄISER SOSE
C.I.A.K. DIO
EZ NAIZELA EXISTITZEN
KÄISER SOSE
NAIZELA
KÄISER SOSE
'MATANZA' JAUNARI
NIK DIOT AGINTZEN

DIKTADURA POLITIKOA
BAKARRIK CUBAN
GELDITZEN DELA
HERAI GUZTIAN
ASKATASUNA
ENE DIKTADURA
EKONOMIKOA

JENDEAK
PENTSATZEN DU
POLITIKARIAK DIRELA
POTEREA
MANEJATZEN DUTENA
HARIAK FINAK DIRA
ETA EZ DIRA IKUSTEN
BAINA ORDENAGAILU
AURREAN
NIK DITUT
MUGITZEN

PELIKULA: OHIKO SUSMAGARRIAK
SOSPECHOSOS HABITUALES / THE USUAL SUSPECTS
(ZUZ: BRYAN SINGER)




ERREGE - MOFFIN'

ERREGEA BILUSIK DAGO
INORK EZ DIO EZER ESAN
ERREGEA BILUSIK DAGO

EGIA
EZ BANAIZ HORIEN BERTINA
EGIA
IZANGO NAIZ ARDI BELTZA
EGIA
BURU BARNEAN DA KARTZELA
EGIA
BAITA KARTZELEROA
EGIA
ISOLAMENDUARI BELDURRA
EGIA
ESANGO DUTENARI
EGIA
EGIARI BELDURRA
EGIA
ETA IPUIN HARTAN BEZALA...

ERREGEA BILUSIK DAGO
INORK EZ DIO EZER ESAN
ERREGEA BILUSIK DAGO

PELIKULA: ZELIG
(ZUZ: WOODY ALLEN)





ESATIDAZUE

ESATIDAZUE LAGUNOK
GASTEIZEN ZER EGIN BA
ASKOZ HOBETO EGOTEN DA
ENE HERRIAN


BIZI GINEN TOKIAN
EZ DAGO TELEFONORIK
HAN EZ DAGO TUNARIK
BAI 'COUSCOUS'-A ETA ARKUMEA

BIZI GINEN TOKIAN
EZ DAGO POLIZIARIK
JAN EBAN ETA PIXA EGIN
ETA IBILI HEMENDIK HARAT

DESERTUAN EZ DAGO
EGON BEHAR
SEMAFORO BERDEAREN ZAIN
BAINA JUSTIZIA ERRESPEATATU
EGITEN DA

DITES-MOI, MES AMIS
QU'EST-CE JE VAIS FAIRE
A PARIS
C'EST MEILLEUR
DANS MON PAYS
JE VOUS LE JURE

PELIKULA : CASABLANCA
(ZUZ: MICHAEL CURTIZ)



KASBLIA HAUTSIA DA COCACAO

KANTU HONEN TEXTUAK EZ DAUKA ESANIAH;
ZENAHIZK, HIZKUNTZ DESBERDINETAKO HITZEKIN
EGINDAKO MDSAI KOA BAITA.
LOUMES MATOUB KANTARI: BERBERIARRAREN
ERAHILKETAK SORTARAZITAKO HUNDAMENA
SAIATZEN DA ISLADATZEN

PELIKULA: URRETXINDORRA HIL
MATAR UN RUISENOIR/TO KILL A MOCKINGBIRD
(ZUZ: ROBERT MULLIGAN)





HABANA ABENDUAK 31

CUBA, LA HABANA
ITSASOKO USAIA
CIENFUEGOS, GUEVARA
AZUKREA ETA 'KAÑA'



TOMASEVICHENEAN
KONGRI ETA TXERRIA
ZERBEZA ETA RONA
URTE ZAHAR GALEAN



"RADIO RELOJ" PIZTU EZAZU
AMAITZEN DA-TA URTEA
ITXAFEROA PRESTATU
EMAIOK KANDELA

RONAREKIN NAHASTUTZEKO
COCA-COLA-RIK EZ DAGO
BOTA 'TROPICOLA'
KOLO REA EMATEKO



ETA BAPATEAN
MUSIKA AMAITU EGIN DA
BAINA MAHAI AZPIAN
NORBAIT KANTARI HASI DA:

"AQUÍ NO HACE FALTA CAMA
AQUÍ NADIE VA A DORMIR"



DANBORRA ETA FESTA
HAUXE JAI GIROA
AI RITXAR, ESNATU!
GOAZEN DANTZATZERA



"PICO Y PALA COMPAÑERO"
"VIEJA TROBA" KASETERAN
GUAYABEROAREN KANTAK
"CUIDAO CON EL PERRO"



ETA BAPATEAN
MUSIKA AMAITU EGIN DA
BAINA MAHAI AZPIAN
NORBAIT KANTARI HASI DA

"AQUÍ NO HACE FALTA CAMA
AQUÍ NADIE VA A DORMIR"



PELIKULA: GOATEKEA
EL GUATEQUE / THE PARTY
(ZUZ: BLAKE EDWARDS)

AUPA "HANSEL MARTINEZ
Y LA ORQUESTA DE LA CALLE 8"

90.000 desaparecidos en Latinoamérica

La producción de películas de Desaparecidos de Ezequiel
está dedicada por su título a los 90.000 muertos a lo
largo de la historia reciente de Latinoamérica. La producción de los desaparecidos
de la historia que sobrevive en México es una consecuencia de
la historia de más muertes.

FRENTE 2



MISSING

ZU AURKITZERA
ETA GALDEZERA
BEHERA JOAN NINTZEN
GORA EZIN

NOR SALATZEA
ZER SALATZEA
DANA ZALANTZAN
INORK EZ DAKI EZER

WHEN I MISS YOU...
HOW I MISS YOU

PELIKULA: MISSING
(ZUZ: COSTA GAWRAS)

EGUN MOTELA

AUTOBUSETIK BEHERA
ZIGARROA LURREAN LAUSOTUZ
ESKAILERA GORA GILTZAREN METAL HOTSA
ATE HAU GIZENDU DELA DIRUDI
ARGIA PIZTU BEHAR
ILLUNA DESEGIN
ZAPATAK APARKATZEKO TOKIA
TOKIA BILATU BEHAR
SUKALDEAN HOTZGAILUA
HILKUTXA DIRUDI
AFALTZEKO GO GOAK
KAPE BERO BATEAN LURTU DITUT
ZIGARRO BAT PIZTU NAHI

HAIXE DA EGUN MOTELA
BERRIZ ASPERTUKO NAIZ
BETI HISTORI BERDINEAZ


TOKATAREN GAIN DAGOEN DISKOAK
HAUTSA AZALEAN ESERI BEHAR NAIZ
DINAK BILUSIK FM EN GAINEAN
TELEBISTAREN ZAPATAK BETETZEN AIDEA

IHESERAKO BOTOIRIK BANU
AUTBIDEEN ARRA HORIAK
BUKATZEN DIREN PUNTURA JOATEKO
TA MODERNOAK "ENGLISH SPEAKING"

HAIXE DA EGUN MOTELA
BERRIZ ASPERTUKO NAIZ
BETI HISTORI BERDINEAZ

PELIKULA: DOWN BY LAW
(ZUZ: JIM JARMUSCH)





PIRATARENA

HAIZEAK LANDATZEN DITUGENAK
EKAITZAK JASOTZEN DITU
HORREGATIK TABLOTIK BEHERA
BOTA DUGU KAPITAINA
ONDOREN KANDIAK PRESTATUZ
HERRIARI EMAN DIOGU SUA

ETA HAU DENA, ZURE BEGIAK
IKUSI NITUELAKO SEGUNDU BATEZ
ETA HAU DENA, ZURE ILEA
IKUSI NUELAKO SEGUNDU BATEZ

HAMAIKA ALTUOR LAPURTU DITUT
KAPRITXOZ BIZITZAK MOZTU
KOLONIETAKO ENPERADOREAK
DILINDAN IPINI DITUT

ETA HAU DENA ZURE BEGIAK
IKUSI NITUELAKO SEGUNDU BATEZ
ETA HAU DENA, ZURE GORPUTZA
IKUSI NUELAKO SEGUNDU BATEZ

PELIKULA: BOUNTYKO MOTINA
REBELION A BORDO / MUTINY OF THE BOUNTY
(ZUZ FRANK LLOYD)

NIRE LEIHOTIKAN

NIRE LEIHOTIKAN EZ DUT IKUSI NAHI
ZIRRARARIK GABEKO "MASA
AMORFOA"REN OHTKERIA

NIRE LEIHOTIKAN EZ DUT IKUSI NAHI
BURUJABEAK EZ DIREN
INDIBIDUALISTA SUTSUAK

NIRE LEIHOTIKAN EZ DUT IKUSI NAHI
ELKARTASUNIK GABEKO JENDEA
TELEBISTAREN AURREAN

NIRE LEIHOTIKAN EZ DUT IKUSI NAHI
IKUSTEZINA BAINA BASATIA DEN
POTERE BATEN SOTILTASUNA

PELIKULA GORPULAPURREN INBASIOA
LA INVASION DE LOS LADRONES DE CUERPOS
INVASION OF THE BODY SNATCHERS
(ZUZ DON STEGEL)





CHINATOWN

- LUZAROAN EGON AL ZINEN BERAREKIN?
- NIK EZIN DUT LUZAROAN INOREKIN EGON
- IRAGANAZ MINTZATZEAK MOLESTATZEN AL DIZU?
- HAN BIZI IZAN DEN GUZTIEI MOLESTATZEN DIE

AHAZTU EZAZU DENA
HAU CHINATOWN BAITA

ALAMEDA 17-12
CHINATOWN.
'CHERCHER LA FEMME'
ALAMEDA 17-12
CHINATOWN.
ISTORIA ERREPIKATU
EGITEN DA

AHAZTU EZAZU DENA
HAU CHINATOWN BAITA

PELIKULA: CHINATOWN
(ZUZ: ROMAN POLANSKI)



AFRIKAN BLUES

ZUZEN SARTU ZINEN
NEURE BIHOTZEAN
ETA ZUK EZIN NI IKUSI

GUZTIEI GOGOETAK
ENTZUTEN EGOTEN NAIZ
ADITU SOILIK NIREAK

ZUZEN SARTU ZINEN
NEURE BIHOTZEAN
ZUZEN SARTU ZINEN

PELIKULA BERLIN GAINEKO ZERUA
CIELO SOBRE BERLIN / DER HIMMEL
ÜBER BERLIN (ZUZ: WIM WENDERS)



KUNBIA SOL MINOR-en

ESKAPARATE HAUNDI HORREN AURREAN DAGO
GURE MUNDUAREN AURREAN
MEJICO DF, RIO EDO MANAGUA
SAO PAULO, LA PAZ EDO BOGOTA
BIZITZEN HASIZ, HILTZEN HASTEN DA
KALEKO UME AHAZTUA

TYAKUR BELTZ BATEKIN
EGIN DU AMETS
KORRIKA HORTZAK ESTUTURIK
KALE GORRIAN
BANKUETXE BATEN ATERPEAN
ESNATU DA IZERDITAN BLAI
MEJICO DF, RIO EDO MANAGUA
SAO PAULO, LA PAZ EDO BOGOTA
BIZITZEN HASIZ, HILTZEN HASTEN DA
KALEKO UME AHAZTUA

PELIKULA BAZTERTUAK
LOS OLVIDADOS (ZUZ: LUIS BUÑUEL)

DANTZAN EGIN LASAI, NORMAN

ETXE ILUN BATEAN
BIZI IZAN ZINEN
MUSIKARIK GABEKO ETXE BATEAN
LAZTANIK EZ
ZURE GORPUTZ TXURI ARGALEAN
FARRE EGITEKOTAN ERE,
BETI MODU URDURIAN

BAINA NIK KANTA BAT
EGINGO DIZUT
ZURI NORMAN BATES POZ BATEAN
DANTZAN EGITEKO
LAPURTU ZIZUTEN ZORIENTASUNA
MUSIKA BITARTEAN IZAN DEZAZUN

DANTZAN EGIN LASAI, NORMAN BATES
GALDERARIK GABEKO MESKA EDERBARENEN
DANTZAN EGIN LASAI, NORMAN BATES
EZ DUZU TA HONEZKERO
BEHARKO LABANIK

PELIKULA PSIKOSIA
PSICOSIS / PSYCHO
(ZUZ: ALFRED HITCHCOCK)



